

Donostia, 2017ko otsailaren 17a

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, PRESERBATIBOAK SALTZEKO MAKINAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa otsaileko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Komunikabide baten bitartez, jakin dugu Udaltzaingoak kanpaina bat jarri zuela martxan, farmazia batzuek kanpoaldean jarrita zituzten preserbatiboak saltzeko makinak kentzeko. Informazio horren arabera, 2016aren amaieran hasi zuten kanpaina, eta, dirudienez, hiriko hainbat farmaziak kendu behar izan dituzte makina horiek.

Gutziz ulergaitza iruditzen zaigu, makinak jarri zirenetik hona igaro den denbora gorabehera, Udalak ez egin izana inolako jarduketarik, eta are ulergaitzagoa egiten zaigu preserbatiboak saltzeko makinak kenarazi izana, osasun publikoaren arloan ematen duten zerbitzua kontuan hartuta.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak proposatu zuen makinak Udalaren jabetzako eraikinetan jartzea, kultur etxeetan eta kiroldegietan, adibidez. Begi onez ikusten dugu neurri hori, baina ez dugu uste kalean makinak jartzea bezain eraginkorra denik, 24 orduz eskuragarri baitaude kalekoak, eta hori ez litzateke gertatuko Udalaren jabetzako eraikinen barruan ipiniko balira, ixteko eta zabaltzeko ordutegiak dituzte eta.

Hori dela eta, hau da aurkezten dugun



KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio mantentzea hirian gelditzen diren fatxadetako makinak.

Izpta.: Amaia Martin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.